

EZJAKIN BATEK PREMIE PROGRAMAREN **BALOREARI** DAGOKIONEZ EGIN DITUEN HAUSNARKETAK

Argi dago esaldiaren pisua adierazleari dagokiola, baina ez dago bere buruari eusten dion adierazlerik, derrigorrez behar du erreferente bat, eta kasu honetan izaera ekonomikoa duen programa bat da, enpresen kudeaketaren aldeko erronkaren bidetik jo duena. Beraz, komeni da izenburua berriz formulatzea eta honi PREMIE PROGRAMAK ENPRESEN KUDEAKETARI DAGOKIONEZ DUEN BALOREA deitzea.

Programa batek eduki dezake balore bat; dena dela, zehaztu egin beharko litzateke nolako balorea den. Bere burua EFQM sistemaren esparruan sustatzen duen egitarau ekonomikoa da. Horrek esan nahi du egon dagoela erreferente bat, kudeaketa bera abiaburutzat hartuta etekin ekonomikorik egokienak lortzeko enpresak nola kudeatu behar diren adierazten duena, nahiz eta, nolabait esateko, erreferente hori ideala izan. (Edozein gauza edo asmo lortzeko balio duten eginbideak egitea)

Programaren balorea enpresa nola kudeatu behar den jakitean datza, eta berariaz azpimarratzen du **nola egin** behar den, hau da, programak eskuliburua garatzen du eta horretan batez ere gakoak diren alderdiak lantzen dira, hots, "formatuak" izeneko horietan gauzatzen direnak.

EGITEKO ERAK DUEN GARRANTZIARI DAGOKIONEZ. Behar bada jakintzat jotzen den kontua dela ematen du. Pentsa daiteke enpresa edo negozio bat sortzen duenak, edo jaraunspenean hartzen duenak berez jakin behar duela zer egin, teoriarik behintzat. Dena dela, nahiz eta hori gero eta ohikoagoa izan, esperientziak behin eta berriz frogatzen digu enpresa bilbadura oso heterogeneoa dela eta aldi berean aurkituko ditugu gaur egun zaharkituta dauden metodoak erabiliz oso aldi zailak gainditzea lortu duten enpresa familiar txikiak, hau da, egineran aritmetika hutsa diren metodoak erabiliz, eta horien ondoan, langileek sortu dituzten enpresak, batez ere 80ko hamarkadaren bueltan langabezia kenduta beste etorkizunik ez zuten pertsonen sortu zituzten enpresa txikiak, eta horiek sortzeko erabili zuten kapitala egiten zekitena baino ez zen, hau da, norberaren lana.

Kasu batean eta bestean kudeaketari dagokionez enpresan zer egin ez dakiten gerenteak aurkituko ditugu, edota merkatuaren ikuspegitik nola jokatu ez dakitenak, edota lehiakideekiko nola jardun, etab.

Kasu hauetan funtsezkoa da "nola egin" hori eta sarritan gerenteek horri buruzko benetako ikaskuntza burutu behar dute. Horrek hurrengo gune interesgarrira eramango gaitu.

FORMATUEN GARRANTZIARI DAGOKIONEZ. Formatuak arestian aipatu dugun nola egin horri hertsiki lotuta daude. Ez daude hor ausaz, plan bateko atala dira (EFQM) eta ulertzeko gauza izateko osotasuna atzematen duen ibilbidea dela jakin behar dugu.

Formatuaren ageriko aldea eta ifrentzua da. Formatu bakoitzak enpresa horren alderdi jakin bat **adierazten du**. Formatu enpresa osoa ukitzen duen datua da. Formatua ez da bere buruaren jabe eta kito, multzo bateko zatia da, enpresako estrategiari lotuta dagoena, eta hortik interpretatu behar da, ez beste inondik. Baina, aldi berean, agerian dagoen zerbait da, ainguraketa, izugarri zaindu behar dena beti, interpretazio guztiak errealitatearen ikuspegitik egin behar direlako.

Multzoa bakarra da (enpresa bakarra da) eta formatua horren batura bideratzen duen zatikia da. Ildo horretatik, formatuaren garrantzia nabarmena da, jausgailuarekin hegan egiteko aukera ematen duelako.

Datu bat interpretatzeko da, ez gordetzeko. Arlo honetan datua ez da kontabilitateko ekintza bat. Interpretatzeko derrigorrezkoa da multzo osoan abstrakzioa egitea. Konjuntzio horren emaitza galdera hau da: Non nago? eta galdera horrek hurrengoa dakar: Noraino heldu nahi dut?

Konjuntziora iristeak esan nahi du galderak formatutik egingo direla. Formatu batek galderak bildu eta eragin behar ditu eta, areago esango genuke, galdera horiek erantzuteko balio behar du edo, besterik ezean, egiaren itxura duten hipotesiak ekarri behar ditu. Nolabaiteko zurruntasuna eta segurtasuna duten mugimenduei ekiteko bideak eskaini behar ditu, hau da, posturatik ahalik eta urrunen egongo direnak, zoriarekin zerikusirik gabekoak.

Horrek guztiak hurrengo atalera eraman gaitu, nagusia den atalera, alegia:

ZEIN DA PREMIEREN BALOREA? Lehenengo eta behin, PREMIEN argi antzematen den balorea da metodoa ematen duela. Metodoa arau, bide, sistema, ohitura eta abarrek eratzen duten multzoa da eta horren helburua metodoa bera ez den eta metodoa bera gainditzen duen beste helmuga batera iristea da.

Baina duen egituragatik programaren balorea bere ataletan gauzak zehazteko duen ahalmenean datza, horri esker zilegi delako erabakietan arau orokorrak sortzea. **PREMIERen balorea ezagutza da.** Ezagutza zehatza, enpresari berari buruzkoa, inguruan kokatzeko eta inguruarekin erkatze bideak ematen dituena eta horrela norberak bere berezko tokitik pentsatzen du, ez toki ezezagun batetik eta horrek, besteak beste, gaur egun hamaika diren dei eroso baina iruzurtietatik ihes egiteko balio du, azken finean ahuntzaren gau erdiko eztulak baino ez direnak, alegia.

Ezagutza transmititzea benetan da gauza zaila, aldi berean norberaren esperientzia transmititu behar delako. Horretarako, **ezagutza** transmititzeko garrantzitsua da metodoa, eta garrantzitsua ez ezik, beharrezkoa da, baina **ezagutzara** iristeko metodoa gainditu behar da (baina albora utzi gabe) eta elementu guztien arteko loturaren ulermenera iritsi.

Uste dut PREMIE era egokian aplikatuz gero eskura daitekeen ezagutza mailari esker norberaren enpresa zer den eta hori nola zuzendu jakitera hel gaitzkeela, eta zuzendu ere nolabaiteko jakinduria mailarekin, eta ez pentsa hori bera gutxi denik.

Mikel Jaureguibeitia